

opusdei.org

"Emakumearen hezkuntza Afrikan guztiz garrantzitsua da"

John Odhiambok, Kenyako Strathmore Unibertsitateko Errektoreak, Espaniara egin duen bisitaldian, Europar Batasunari goi mailako ikasketen finantzaketa eskatutik, jendeak unibertsitateetan matrikulatzeko dauzkan zailtasunak direla eta.

2009 Mar 4

Afrikako populazioa gaztea delarik – ehuneko hirurogeiak hogeita bat urte baino gutxiago ditu– Odhiambok gazteen hezkuntzan inbertitzearen garrantzia azpimarratu du garapenaren eragile denez.

Bere iritziz, maila guztietako irakasle gabezia ikastetxeetan da Afrikak duen problema bat.

Adibidez Hegoafrikak lehen mailako irakaskuntzako 260.000 irakasleen beharra dauka, Afrikar kontinenteetan garapen handiena izan duen herria izanda ere.

Ehuneko bata bakarrik

Strathmore Unibertsitateko Errektoreak dioenez, Kenyan nazio produktu gordinaren ehuneko zazpia hezkuntzara doa, eta Espainian portzentaia hori ehuneko lauaren inguruan dabil.

Baina, ahalegin ekonomiko hori egin den arren, kenyatarren ehuneko batak baizik ez du unibertsitateko titulurik.

Lehen mailako hezkuntza doan denez, populazioaren ia ehuneko lauregeita hamarrek oinarrizko hezkuntza lortzen du, baina portzentaia hau asko gutxitzen da goi mailako ikasketetan unibertsitateetako matrikukak garestia baitira.

Kenyan urtero 40.000 ikaslek amaitzen dituzte bigarren mailako ikasketak unibertsitateko ikasketetan sartzeko moduan, baina 10.000 dira bakarrik Estatuko diru laguntza hartzen dutenak. Horregatik besteak ez dute beste aukerarik kanpora joan edo ikasketak bertan behera utzi baizik.

EFE

pdf | document generated
automatically from [https://opusdei.org/
eu-es/article/emakumearen-hezkuntza-
afrikan-guztiz-garrantzitsua-da/](https://opusdei.org/eu-es/article/emakumearen-hezkuntza-afrikan-guztiz-garrantzitsua-da/) (2026
Mar 13)